

# Politiken eta Giza Garapen Iraunkorraren ikuspegiaren arteko koherentziaren azterketa

## Proposamen metodologikoa



EUSKADIKO GGKEen  
KOORDINAKUNDEA  
COORDINADORA  
de ONGD EUSKADI

## Argitaratzailea:



[www.ongdeuskadi.org](http://www.ongdeuskadi.org)

### Araba

Simone de Beauvoir Elkarteen Etxea  
San Ignacio de Loyola 8, 3. 1. bulegoa  
01001 **Vitoria-Gasteiz**  
☎ 945 280 745  
[araba@ongdeuskadi.org](mailto:araba@ongdeuskadi.org)

### Bizkaia

Ronda z/g (5. zk-ren aurrean), 3. C bulegoa  
48005 **Bilbo**  
☎ 944 150 300  
[bizkaia@ongdeuskadi.org](mailto:bizkaia@ongdeuskadi.org)

### Gipuzkoa

Iparragirre 8, behea  
20001 **Donostia / San Sebastián**  
☎ 943 463 526  
[gipuzkoa@ongdeuskadi.org](mailto:gipuzkoa@ongdeuskadi.org)

UNA Comunicación y Gestión aholkularitzari  
eta Silvia Piris Lekuonari 2018an enkargatutako azterlana.

## Laguntzaileak:



Diseinu eta maketazioa: Marra S.L.

Itzulpena: Bakun itzulpen eta argitalpen zerbitzua

# Aurkibidea

1. Sarrera .....	5
2. Esparru teorikoa .....	6
3. Hiru Foru Aldundien lankidetzak .....	9
4. Hiru Foru Aldundien mapaketa .....	9
5. Esparru, dimentsio eta galdera gidarien matrizea .....	11
6. Analisisirako matrizea .....	13



## 1. Sarrera

Mundu globalizatu batean bizi gara, dena dago elkarren artean lotuta, eta hainbat elementuk elkar eragiten dute. Orobat, indarrean den sistemak askotariko arazoak sortzen ditu: pobrezia, desorekak, giza eskubideen urraketak, eskubide sozialen murrizketak, ingurumen-arazoak, migrazio-krisiak, emakumeen bazterketa... Gaur egungo arazoak globalak dira, eta konponbideei ere globaltasun horretatik heldu behar zaie. Garapenaren agenda globalari erreparatuz gero, argi geratzen da Garapenerako Laguntza Ofiziala beharrezkoa dela, baina ez dela nahikoa. Horregatik nabarmentzen dugu Garapenerako Politiken Koherentzia (GpK). Euskadiko GGKEen Koordinakundearen arabera, haxe da koherentzia horren definizioa: *lankidetzaren eragin positiboa hobetzearen aldeko ekintzen multzoak, guztiz ziurtatuz betiere gainerako politikak giza garapen ekitatibo eta iraunkorraren aldeko eta pobreziaaren aurkako borrokan aintzat harturiko helburuen arabera direla, inolako esku-hartzek ez ditzan geldiarazi edo indargabetu lankidetzaren bidez lortutako aurrerapausoak.*

Autonomia-erkidegoek, foru aldundiek eta tokiko gainerako erakundeek eskumen zabalak dituzte hainbat esparrutan, besteak beste, baita egoera ahulean dauden biztanleen gain eragina izan dezaketen politiketan ere. Beraz, gobernu deszentralizatuak herrialde bazkideen garapenari laguntzeko duten konpromiso gero eta handiagoa beteko badute, ezin dute lankidetzaprograma eta -proiektuak sustatzera mugatu. Beren gobernuetako beste politikei ere begiratu behar diete, eta koherentzia (GpK) maila handia lortzen ahalegindu behar dute. Gobernu deszentralizatuak harreman-sare konplexu batean daude murgilduta gainerako gobernuekin (estatuetaoekin, nazioartekoekin...), bai eta garapenerako politiken koherentzia sustatzerakoan kontuan hartu beharreko gainerako eragileekin ere.

Horrela dio Lankidetzaren Garapenari buruzko 2007ko Legeak: *"Garapenerako lankidetzari lotutako jarduerak elkarrekin koherenteak izan daitezen zainduko dute euskal administrazio publikoek, eta beharrezko diren koordinazio-mekanismoak jarriko dituzte horretarako hala beren artean, nola beste administrazio publiko batzuekin, beste erakunde batzuekin eta nazioarteko lankidetzagantzia eta -organismoekin".*

Ezin dira ahaztu garapenaren nazioarteko agenda berria eta Garapen Iraunkorrerako Helburuak. Iparra-Hegoa logika gainditzeko esparrua hezurmamitzen da horietan, eta koherentziaren ikuspegia gehitzen da; horren arabera, Iparraldeko eta Hegoaldeko gobernuak helburu jakin batzuk bete behar dituzte eta gobernuaren arlo guzti-guztiak bildu behar dituzte garapen iraunkorra lortzeko bide horretan.

Horretarako, Euskadiko GGKEen Koordinakundearen lehentasun estrategikoetako bat da nazioarteko solidaritatean eta giza garapen iraunkorrean oinarritutako GpKari bultzada ematea. Horrenbestez, behar-beharrezkoa da hainbat sektoretan euskal administrazio publikoen GpKren jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, eta, hain zuzen, horretarako landu du Euskadiko GGKEen Koordinakundeak txosten hau. Azterlanak hiru lurralde historikoetan eskumen-esparru horretan garatutako politika motak identifikatzen ditu, eta analisirako esparru bat proposatzen du, GpK osoaren ikuspegia oinarritzat harturik. Analisirako marko horrek emandako kategorien arabera ulertu ahal izango dugu zer den Giza Garapen Iraunkorraren (GGI) ikuspegiarekin koherentzia gordeko duten politikak garatzea.

## 2. Esparru teorikoa

Hauek dira esparru teoriko honen funtsezko zutabeak: GpK eta GGI.

GpKari dagokionez, eta zehazki azterlan honetarako garapenerako politiken koherentziari buruz proposatzen dugun ikuspegiari dagokionez, esan dezakegu kontzeptuak bilakaera bat izan duela; hala, gaur egungo hainbat proposamenek beharrezkotzat jotzen dute GGI zehar-lerro gisa jasotzea euskal administrazio publikoen proposamen politiko osoan. Prozesu honetan zereginik nagusienak hauek izan dira: GGIn ikuspegiarekiko politika koherentetzat zer ulertzen dugun finkatzea, eta koherentzia hori, posizionamendu politiko orokorrez harago, politika publikoarekin lotura zuzena duten elementuetan nola txertatu zehaztea.

Kontuan hartu ditugu GpK kontzeptuari buruz gure inguruan erabiltzen diren gaur egungo hurbilketak, bereziki lankidetzaren sektorearekin eta euskal administrazio publikoarekin (zehazki, Eusko Jaurlaritzarekin) lotura dutenak, eta ikuspegi horren ertz ugariatako begirada osoaren alde egin dugu apustu.

Kontsultatutako azterlan askotarikoak eta dimentsioak ere aintzat harturik, ikerketa-prozesu honetan hurrengo urratsa GpKren zer ikuspegi mota erabili zehaztea izan da. Azterlan honen asmoa ez da hautatutako hiru administrazioek GpKan egiten duten lana konparatzea, ez maila orokorrean ez arloz arloko politiken analisi zehatzagoetan. Beste ikerketa batzuetarako intereseko ikuspegia izan daiteke konparazio hori, baina ez da izan honako honen ardatza. Berritzaileagoa iruditu zaigu, GpKren kontzeptu hori oinarri harturik, GGIn ikuspegia administrazioek egiten duten politiken erdigunean jartzeko erronka horretan aurrerapausoak ematea eta bide horretan lan egitea. Hau da, interesgarriagoa iruditu zaigu galdera eta adierazle egokien bidez analisirako esparru bat sortzen saiatzea, hautatutako hiru administrazioentzat baliagarria, honako galdera hauei erantzuna eman ahal izateko:

### Zer galdera egin behar dizkiogu politika publikoari jakiteko ea koherentea den GGIn ikuspegiarekin? Nola begiratu, zehaztu, neurtu eta ebaluatu dezakegu koherentzia hori?

GGIn dagokionez, horren ezaugarri nagusiak identifikatzen saiatuko gara, Nazio Batuen Garapen Programak (NBGP) emandako definizioa erreferentziatzen hartuta. Funtsezkoa izango da, halaber, Eusko Jaurlaritzaren enpresa-nazioartekotzerako politikari buruzko azterlanaren esparru teorikoa. Euskadiko GGKEen Koordinakundeak Latinoamerikako Multinazionalen Behatokiari enkargatutako *Eusko Jaurlaritzaren enpresa-nazioartekotzerako politiken analisia: garapenerako politiken koherentzia* izenburuko azterlanean (2017), analisi interesgarria egiten da, GGIn ikuspegi hori zenbait indar-ideiatan jasotzen baita. Eta garrantzitsuak izango dira, halaber, beste egile batzuek eginiko ekarpenak eta dagokion atalean aipagai izango ditugun beste azterlan batzuk ere.

Horrenbestez, bide horretan eginiko lanaren xedea ikuspegi hau ahalik eta gehien zehaztea da, oinarri horren gainean eraikiko baita politika publikoen koherentzia maila neurtzeko baliatuko diren galdera eta adierazleen matrizea.

Taula honetan laburtu ditugu GGIren ikuspegiari buruzko zenbait begirada:

GGIren printzipioak <sup>1</sup>			
NBGP	Euskadiko GGKEen Koordinakundea	Natalia Millán	LMB
Ongizatea	Gaitasunak eta aukerak zabaltzea	Garapenaren dimentsio ugariak	Pertsona guztien ongizatea / gizakiaren zentralitatea
Ahalduntzea eta agentzia	Genero-berdintasuna sustatzea	Giza eskubideen ikuspegia	Iraunkortasuna
Justizia	Ingurumenerako eskubidea bermatzea	Ekitatea sustatzea (emakume eta gizonen arteko eta belaunaldien arteko aukera-berdintasuna)	Gaitasunak / ahalduntzea
Planeta partekatua. Muga fisikoekiko errespetua	1., 2. eta 3. belaunaldien giza eskubideak sustatzea	Naturarekiko harmonia	Parte-hartzea
			Ekitatea

Ikerketa-prozesu honetarako, GGIri buruzko gure indar-ideiak landu ditugu. Hala, bi ardatz nagusi finkatu ditugu, politiken koherentzia neurtzeko aukera emango diguten adierazleak zehaztean, funtsezkoak izango diren bi ardatz.

Lehenik eta behin, garapena zer den argitzeko galderari erantzun nahi horretan, dimentsio-aniztasunaren idea berreskuratuko dugu, garapena esaten diogun horretan zer politika motak esku hartzen eta eragiten duten adierazten baitigu ideia horrek. Hala, jabetuko gara politika mota guztiek esku hartzen eta eragiten dutela garapenean. Begirada murriztaileago batek alderdi ekonomikoarekin lotuago dauden zenbait politika hautatzen ditu, eta garapen-prozesuen analisiaren ardatz hartzen; aldiz, begirada multidimentsional horrek adierazten digu, gure iritziz, globaltasun eta osotasun horretatik abiatuta egin behar direla analisiok.

Gure azterlanaren kasu zehatzean, begirada horrek adierazten digu GGI ardatz nagusi bat dela administrazio batek martxan jarritako politika publiko guztietan, ez soilik sustapen ekonomikoekin, enpleguarekin edo kanpo-ekintzarekin zerikusia dutenetan, adibide batzuk jartze aldera, baizik eta partaidetzarekin, kulturarekin edo gobernantzarekin zerikusia duten politiketan ere bai. Hala, proposatutako GGIren ikuspegi honetan hainbat dimentsio izango ditugu hizpide eta aztergai: ekonomikoa, soziokulturala, ekologikoa eta politikoa.

Bigarrenik, proposatutako garapen mota zerk ezaugarritzen edo bereizten duen galderari erantzuten saiatu gara. Kontua ez da garapena esparru desberdinetan gertatzen dela soilik; kontua da ikuspegi honek prozesu mota jakin baterantz bideratzen gaituela, giza eredu iraunkor baterantz. Zer garapen litzateke egokiena edo desiragarria? Aurkeztutako analisisan oinarrituta, azaldutako gakoak hiru multzo nagusitan bil ditzakegu, gure ustez: iraunkortasunean, ekitatean eta ahalduntzean oinarritutako garapen-eredua, eta, orobat, iraunkortasuna, ekitatea eta ahalduntzea sustatuko dituen.

<sup>1</sup> NBGP: Nazio Batuen Garapen Programa.

Natalia Millán: Zientzia Politikoetan doktore. Irakaslea eta garapen iraunkorrari lotutako gaiari buruzko ikerlaria.

LMB: Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia.

Iraunkortasunaren irizpideak adierazten du garapen-eredu hau mamitzean, gutxienez honako hauek hartu behar direla aintzat: planetaren muga fisikoak eta etorkizuneko belaunaldien ongizatea eta garapenerako aukera. Alde horretatik, iraunkortasunaren irizpideak indar handia hartzen du, eta ipar izan behar du garapen-prozesu osoan. Klima-aldaketa eta krisi ekologikoa direla medio, gure gizarteek, halaber, iraunkortasuna zainduz egituratu eta antolatu behar dute beren burua, eta premisa horrekin bat etorriko diren ekoizpen- eta kontsumo-ereduetarantz egin behar dute bidea. Indar-idea horretan funtsezkoa da bi begiradak kontuan izatea, tokikoa/globala eta Iparra/Hegoa, eta prozesu horiek lurraldeetatik bertatik zehaztu behar direla ulertu behar da, gainerakoarekin lotura gordez: garapen iraunkorreko ereduak pentsatu behar ditugu ingurune hurbilerako, baina baita planetan bizi diren beste pertsona batzuentzako ere.

Ekitatearen irizpideak adierazten du garapenaren ikuspegiak aurre egin behar diela egun indarrean diren desoreka eta asimetria ugari. Ekitatearen irizpidea oinarrian dela, esan nahi dugu pertsona guztiei modu ekitatiboan bermatu behar zaizkiela baliabideak, eskubideak eta askatasunak, eta, horretarako, aintzat hartu behar direla aniztasuna eta pertsonen gizartearen duten egoera eta posizio desberdina, baita menderakuntzarako eta bazterketarako dauden aldagai ugariak ere, hala nola generoa, arraza, jatorria, sexu-aukera, aniztasun funtzionala, adina eta abar. Hala, besteak beste, ideia hauek hartu beharko lirатеke ipar, garapenerako ikuspegi eta jardun politiko orotan: birbanatzea, elkartasuna, justizia soziala, unibertsaltasuna edota dibertsitatea.

Azkenik, ahalduntzearen irizpidea zuzenean loturik dago garapena prozesu gisa ulertzearen ideiarekin. Garrantzitsua da bestelako helburu batzuk finkatzea, baina ez hori bakarrik; inportantea da, orobat, helburu horiek nola eta noren artean definitzen ditugun. Pertsonak eta komunitateak beren garapenaren subjektu dira, eta, beraz, garapen horren definizioan parte hartu behar dute. Baldintza hori, ordea, ez dago beti bermatuta indarrean den garapen-ereduan, interesak eta beharrezan beti kapitalaren interesaren mende baitaude. Horrenbestez, ikuspegi horrek lehentasunetako bat izan behar du pertsona horien ahalduntzea sustatzea, eta erabakitze eta erabakiak hartzeko gaitasuna duten subjektu bihurtu behar ditu. Ezinbesteko baldintza da hori GGIri buruz hitz egiteko.

Atal honekin bukatzeko, Garapen Iraunkorreko Helburuen 2030 Agenda aipatu nahi izan dugu, batez ere identifikatzeko agenda horrek zer neurritaraino izan dezakeen lotura eta lagundu dezakeen aurrez azaldutako GpKren eta GGIn ikuspegiaren aldeko lanean. Azpimarratzekoa da proposamen honi iraunkortasunaren ideia gehitzean eman den jauzi nabarmena. Iraunkortasuna beharbada argiago formulatu da dimentsio ekologikoari loturik, baina aipamen argiak egin dira dimentsio ekonomiko eta sozialari loturik ere. Gainera, agenda horrek bokazio unibertsal argia du, eta gidatzen hartu behar dute ez soilik herrialde pobretuek edo pobretutzat hartzen direnek eta haien tokiko eta eskualde nahiz nazio mailako administrazio eta eragileek, baizik eta herrialde guzti-guztiek.

Bestalde, administrazio deszentralizatuek, kasu honetan Foru Aldundiek, beren identitatea eta eskumen-esparrua dute, hurbilago dituzte herritarrak eta, azken batean, pertsonen bizimodua bera. Hori dela eta, uste dugu aukera gehiago dituztela agenda hori berrinterpretatzeko eta eraldatzaileagoa eta eragin handiagokoa bihurtzeko; askatasun handiagoa dutela, aurkeztutako gai guztien artean (baita eredu-kontraesana sortzen dutenen artean ere) giza garapen iraunkorreko eredu horretatik hurbilago daudenak hartzeko (eredu horren alderdi kritikoena aintzat izanik). Aukera dutela, azken batean, GGIn ikuskera kritikoenarekin, eta, gure iritziz, emantzipatzaileenarekin koherentea izango den 2030 Agendaren alde apustu egiteko.

Hala, uste dugu 2030 Agenda euskarri izan daitekeela administrazioen ahalegina gidatzeko eta bermatzeko, administrazioaren maila guztietan, hala nola foru aldundien kasuan, eta GGIn ikuskera haien politika guztien erdigunean jartzeko, eta ez soilik lankidetzarekin loturiko politiketan. Ikuspegi hau begirada baliagarria izan daiteke eta izan behar du lurralde bakoitzeko prozesu sozialak, politikoak eta ekonomikoak ulertzeko eta horietan aurrerapausoak emateko, gero eta iraunkortasun, ekitate eta ahalduntze handiagoa lortzeko bidean.



### **3. Hiru Foru Aldundien lankidetzaren politikak**

Ikerketa honetan aztertutako foru aldundien dokumentu estrategikoen berrikuspenera aurkeztuko dugu puntu honetan. Zehazki, GGIren ikuspegiaren eta GpKren aldeko apustua nola esplizitatzen den eta apustu hori orain arte azaldutakoarekin bat datorren aztertu dugu. Zehazki, honako dokumentu eta politika hauek aztertu ditugu: Arabako Foru Aldundiaren kasuan, *Eskutik* dokumentua (2016), Bizkaiko Foru Aldundiaren III. Gida Plana (2017-2020) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren Garapenerako lankidetzaren jarduketaren marko estrategikoa.

Analisi horretatik, honako ondorio hauek ateratu dituzkegu, gure azterlanerako erabilgarri:

- Hiru Foru Aldundiek bat egiten dute GGIren ikuspegiarekin eta, zehazki, 2030 Agenda-Garapen Iraunkorreko Helburuen Agendarekin. Horrela, garapen-prozesuen dimentsio-aniztasuna ulertu behar dela adierazten dute, bai eta Iparraldeko eta Hegoaldeko herrialdeek nahitaezko erantzunkidetasuna dutela ere. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da garapen-ereduak, ekoizpenekoak, kontsumokoak eta abar auzitan jartzea eta eraldatzea, baita hemen ere, garatuzat hartzen diren herrialdeetan, iraunkorrak eta ekitatiboak izan daitezzen. Alde horretatik, oso argi bereizten dute administrazio deszentralizatuek eta tokikoek zer eginkizun duten Agenda hori betetzen eta garatzen.
- Eraldaketa Sozialerako Hezkuntza aipatzen da kasu guztietan, eta tresna erabilgarria dela azpimarratzen da gure gizarteetan beharrezko eta premiazko eraldaketa horiei ekiteko, herritarren eta administrazioen artean kontzientzia kritikoko prozesuak sustatzeko eta gaur egungo erronka handiei aurre egiteko.
- GpK baldintza ezinbestekoa gisa jotzen da, hori gabe ezin baita egiazko GGIn buruz hitz egin. Hiru administrazioek beharrezkotzat jotzen dute GpKren ikuspegi tradizioaletik harago joatea (horren arabera, lankidetzaren politikak dute erantzukizun nagusia), eta proposatzen dute gainerako sailekin batera lan egiteko guneak sortzea eta politika guztien erdigunean GGIren ikuspegia ezartzeko aukera emango duten neurriak martxan jartzea.
- Aurrez aipatutako hiru ideia horien argitan esan liteke hiru Foru Aldundien esparru politiko eta estrategikoa azterlan honetan eginiko proposamenen aldekoa dela. Areago, agiri horietan eta GpKren eta 2030 Agendaren aldeko jarrera politiko argiaren bidez adierazten den moduan, esan dezakegu derrigortuta daudela zehaztera nola gauzatuko duten posizionamendu hori. Uste dugu, beraz, hemen aurkeztera goazen tresna hau egokia dela, administrazio horien errealitatearekin bat datorrela, eta, gainera, erabilgarria izan daitekeela haientzat, dituzten konpromisoak betetzeko.

### **4. Hiru Foru Aldundien mapaketa**

Hiru Foru Aldundien egitura eta eskumenak aztertu ditugu. Diputazio bakoitzaren egitura desberdina da. Alde batetik, politikak berak sail desberdinetan banatzen dira, eta, bestetik, banaketa diferente horren argitan antzematen da politiken hierarkizazioa ere desberdina dela hiru erakundeetan. Hori dela eta, hiru Foru Aldundien sailak ikerketa honetan proposatutako lau esparruetan biltzea proposatzen dugu, politika publikoak GGIren ikuspegiarekin koherenteak diren ala ez aztertzeko. Era berean, sailak ez baizik eta diputazioen politikak berak lau esparru horietan berrantolatzearen proposamena ere egin dugu; hala, ikerketa honetarako sortutako analisi-tresna aplikatze aldera, azterketarako adibide gisa analizatuko eta aurkeztuko dira zenbait politika jakin.

Azterlan honen asmoa da tresna erabilgarri bat sortzea, beharrezkoak diren doikuntzekin, hiru Foru Aldundietan ezartzeko. Beraz, hori kontuan izanda, hauxe izan da ikerketa honetan hurrengo urratsa: aurkeztu berri ditugun hiru mapen arteko loturak eta elementu komunak aurkitzea. Horretarako, gure GGIn ikuspegia eta, zehazki, garapen-prozesuen dimentsio-aniztasunaren beharrezkotasuna aipatzen zuen indar-ideia hartu dugu erreferentziatzat. Hala, hurrengo azpi-atalean xehetasun handiagoz ikusiko dugunez, uste dugu GGIn proposatzen duela garapen-prozesuak gutxienez dimentsio hauetan aztertzea: ekonomikoan, sozio-kulturalean, ekologikoan eta politikoan. Eta, hain zuzen, kategorizazio horri jarraitu diogu aztertutako administrazioen politikak ordenatzeko. Modu horretara, politikak GGIn ikuspegiarekin koherenteak diren egiaztatzeko eta aztertzeko tresna erabiltzen duenak, jakin ahal izango du zer galdera egin behar dizkion aztergai den politika bakoitzari.

Multzokatze hori ezin da ulertu edukiontzi itxi eta iragazgaitzen sail baten modura. Proposamen metodologiko bat da berez, eta hiru egitura desberdinetan elementu komunak bilatzea da horren xedea. Proposamenak GGIn ikuspegiaren eraginpean eraikitako begirada du abiapuntu eta bere dimentsio-aniztasuna aldarrikatzen du.

Badira politika publikoak zehar-lerro gisa ezartzeko beste esperientzia batzuk; beharbada, nabarmenenak emakume eta gizonen arteko berdintasunerako politikak dira. Uste dugu politika horiek erreferentzia izan direla azterlan honetarako; areago, uste dugu erreferentzia izan daitezkeela politika publikoek GGIn ikuspegiarekiko duten koherentzia landu nahi duen estrategia ororentzako. Gainera, ikuspegi hori politika publikoen erdigunean jartzekoan, politika publiko horien eskutik sortzen diren eronkei eta aukerei buruzko zenbait ideia azaltzen ere saiatu gara.


Hori guztia aintzat hartuta, diputazioen politikak esparru teorikoan eraikitako esparru bakoitzean banatzeko gure proposamena adierazi dugu honako taula honetan:

Esparru ekonomikoa	Esparru sozio-kulturala	Esparru ekologikoa	Esparru politikoa
- Ekonomia-sustapena	- Kultura	- Baso-baliabideak	- Kudeaketa-estrategia
- Enpresa-sustapena	- Gaztedia	- Lurralde-oreka	- Komunikazioa
- Berrikuntza	- Kirolak	- Mugikortasuna	- Araubide juridikoa
- Nekazaritza	- Mendekotasuna	- Garraio publikoa	- Funtzio publikoa
- Abeltzaintza	- Ezgaitasuna	- Lurraldearen kohesioa	- Kudeaketa publikoaren modernizazioa
- Mahastizaintza eta enologia	- Prestazio ekonomikoak	- Hirigintza-antolamendua	- Kanpo-ekintza
- Landa-garapena	- Haurren babesa	- Errepideen kudeaketa eta planifikazioa	- Erakunde arteko harremanak
- Lurralde-oreka	- Gizarteratzea	- Ingurumena	- Herritarren partaidetza
- Ogasuna	- Bizikidetzak	- Obra hidraulikoak	- Herritarren arreta
- Finantzak	- Kulturartekotasuna	- Prebentzioa, suteak itzaltzea eta salbamendua	- Gobernantza ona eta gardentasuna
- Aurrekontuak	- Hizkuntza-berdintasuna		- Garapenerako lankidetzak
- Enpleguaren sustapena	- Emakume eta gizonen berdintasuna		
- Merkataritzaren sustapena			
- Turismoa			
- Azpiegiturak			
- Foru-ondarea			

## 5. Esparru, dimentsio eta galdera gidarien matrizea

Puntu honetan, landutako tresna zer kategoria nagusitan egituratzen den azalduko dugu. Matrizea esango diogu tresna horri. Modu horretara, aurrez adierazi dugun eran, honako hauen artean zer lotura dagoen adierazten saiatuko gara: batetik, dokumentu honen lehen atalean aurkeztutako gure esparru teorikoaren, bestetik, tresnarako proposatutako kategorien eta, hirugarrenik, tresna operatibo egin eta politika publikoak GGIrekiko koherenteak diren jakiteko politika horiei egin behar zaizkien galdera zehatzen artean.

Honako grafiko honek modu eskematikoan jasotzen du orain arte azaldutakoaren eta kategorien artean dagoen lotura.



- **Esparruak:** Matrizearen irakurketa orientatzen duen lehen irizpidea esparruena da. Aurreko irudian islatu dugunez, kategoria honen definizioaren oinarrian hauxe dago: garapen-prozesuei ezinbestean dimentsio eta ertz askokotatik begiratu behar zaielako ideia hori; izan ere, prozesu horiek gai ekonomiko hutsekin ez ezik beste askorekin dute lotura. Informazioa antolatzeko aukera ematen duten irizpide gisa hartu behar ditugu esparruak, eta ez konpartimentu itxi gisa. Horixe bera esan dezakegu, orobat, matrizea osatzen duten beste kategorietarako ere. Garapen-prozesuei dimentsio askotatik begiratu behar zaiela, begirada osoa eta konplexua eskaini behar zaiela nabarmentzen dugun heinean, dimentsio horiek ezartzea gehiegi sinplifikatzea litzateke. Horrenbestez, dimentsio ireki gisa eta halaberrez haien arteko interakzioan ulertzea proposatzen dugu. Zaila da muga argiak zehaztea zer ulertzen dugun prozesu ekonomikotzat eta zer prozesu politikotzat, adibidez. Edo non hasten den eta non amaitzen esparru sozio-kulturala eta non politikoa.
- **GGIn indar-ideien arabeko galdera orokorrak:** Bigarren irizpidea esparruak eta GGIn ikuspegian identifikatutako indar-ideiak uztartzen saiatzen da. Hala, esparru teorikoan azaldu dugun moduan, proposatutako garapen-ereduak iraunkortasuna, ekitatea eta ahalduntzea izan behar ditu oinarri eta horiek sustatu behar ditu. Hain zuzen, elementu eta balio horiek hezurramitu behar dute aipatutako eredua. Horrenbestez, hurrengo urratsa indar-ideia orokor horiek zehaztutako lau esparruetara nola hurbildu bereiztea izan da. Beste modu batera esanda, nola bihur dezakegun, adibidez, iraunkortasuna, ekitatea eta ahalduntzea oinarri izango dituen eta sustatuko dituen politika ekonomiko baten ideia, hiru galdera jakinetara. Beraz, azpi-kategoria horien arabera ordenatzen dira esparru bakoitzerako proposatutako galdera espezifikoak.

- **Politika publikoko tresnen araberako galdera espezifikoak:** Hirugarren eta azken kategorian honetan, bi hauek uztartzen saiatu gara: batetik, esparru bakoitzeko formulatutako galdera orokorrak, eta, bestetik, esparru horietako bakoitzean barnebiltzen diren politika espezifikoak eta politika publikoek baliatzen dituzten tresna zehatzak, lau azpi-kategoriatan antolatuta.

**JAKIN (J):** Lehenik eta behin, azterlanak, txostenak, diagnostikoak, estatistika-datuak etab. lantzearekin eta horien komunikazioarekin eta hedapenarekin loturikoa bildu dugu. Bigarrenik, auditoriak, tresna indarrean den bitarteko eta ondorengo ebaluazioak, jarraipenerako tresnak eta abar. Hirugarrenik, administrazioaren barneko prestakuntza-prozesuak, eta kanpokoak, herritarrei zuzenduak, sentsibilizazioa, kontzientzia kritikoa sortzea, etab.

**ARAUTU (A):** Azpi-kategoria honetan zuzenbide eta araudi aldetik aterki bat eratzea dugu aipagai, GGIn ikuspegi garatzeko aukera emango digun babes bat. Besteak beste, honako tresna hauek: legeak, arauak, ordenantzak, adierazpenak...

**PLANIFIKATU (P):** Hemen biltzen da planak, programak, gida-dokumentuak, estrategiak eta abar lantzeko prozesuarekin loturiko guztia. Ekintza publikorako gida eta orientazio izango diren helburuak, lehentasunak eta neurriak ezarriko dira horietan.

**KUDEATU (K):** Aurrekontua zuzenean nahiz zeharka gauzatzea, eta, orobat, dirulaguntzen eta laguntzen ildoak, kontratazio publikoa, zerbitzuen prestazioa, proiektuak gauzatzea, kontratazioak, etab. Politika horiek kudeatzeko sortu diren espazioak ere jasotzen dira.

Azkenik, onartu beharrean gara oraindik ere lan asko dagoela egiteko, bai politika espezifikoaren analisia bai analisi horizontalago eta osoagoetan. Alde horretatik, gure gomendioa, testuan zehar behin baino gehiagotan aipatu dugunez, bikoitza da:

- **Ikasketak.** Zehar-lerrotzat hartzen diren beste politika batzuk erreferentziatzen hartu, hala nola emakume eta gizonen arteko berdintasuna, euskara, Tokiko 21 Agenda, etab., eta horietatik atera daitezkeen ikasketak identifikatzen jarraitzea. Jakitea arau-esparru horiek praktikara nola eraman diren; hainbat tresnaren bidez (araudiak, planak, ebaluazioak...) eta gune eta eragile jakin batzuen bidez (agente espezifikoak, koordinaziorako guneak...) nola garatu diren. Ikasketen atal honetan, sakontzen jarraitu behar dugu GGIn ikuspegiak zertan egiten duen bat beste proposamen alternatibo batzuekin; besteak beste, elikadura-burujabetzarekin, ekonomia sozial eta solidarioarekin eta/edo feminismoarekin, horiek ere garapen argia baitute politika publikoen esparruan.
- **Sinergiak eta aliantzak.** Alde horretatik, funtsezkoa da GGIn ikuspegi politika publikoetan txertatzea, baina ez ikuskera itxi moduan eta beste ikuskera hegemoniko batzuekin lehian, baizik eta balizko aterki baten moduan, abaro horretan kokatzeko proposamen eraldatzaile askotarikoak; iraunkortasuna, ekitatea eta ahalduntzea aldarrikatzen duten proposamenak. Berdin dio zer izen hartzen duen, GGI, bizitzaren iraunkortasunerako proposamenak edo beste kontzeptu bat, guztien muinean ideia bera baitago: premiazkoa dela ekonomia eta antolaketa sozialerako beste eredu bati heltzea, eta Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harremanak ere halaberrez beste era batekoak izatea. Hori dela eta, gure iritziz, garrantzitsua da sinergiak eta zubiak sortzea, hala administrazioaren kanpotik, eskakizun horiekin lotura handiagoa duten proposamen politiko koherenteak sortuz eta nazioarteko elkartasunaren ikuskera hori emanez, nola administrazioaren beraren barnean. Helburua da lankidetzaren politikak horiek elkarren artean sinergiak sortzea eta leku "minorizatu edo bigun" horretatik ateratzea, zenbaitetan, oso zaila baita leku horretatik lan egitea koherentziari bultzada emateko.

Espero dugu dokumentu honetan zenbait gako ematea lan horri jarraitzeko, begirada zatikatuak hausteko, erantzunkidetasunean aurrerapausoak emateko eta oinarrian beste begirada batzuk – begirada solidarioagoak, bidezkoagoak, ekitatiboagoak, ahalduntzaileagoak eta iraunkoragoak – izango dituzten politika publikoak eraikitzen jarraitzeko. Erronka handia da, premiazkoa eta zirrargarria.

## 6. Analisisirako matrizea



Esparru ekonomikoa	
Galdera orokorrak	
<p><b>Iraunkortasuna:</b> Politika ekonomikoak, hazkunde ekonomikoaren helburu nagusiari aurre eginez, iraunkortasun-irizpideak hartzen al ditu zentzu zabalean?</p> <p><b>Ekitatea:</b> Zer jartzen dira politikaren erdigunean, helburu nagusi moduan, guztion onura bermatzea eta gehiengo nagusiaren beharrezan erantzungo dien ekonomia, ala elite ekonomikoaren interesak?</p> <p><b>Ahalduntzea:</b> Pertsonen bizitzako interes eta beharrezanekin loturiko politika ekonomikoa sustatzen al da? Eta pertsonak ba al dute aukerarik gai ekonomikoen definizioan modu aktiboan parte hartzeko?</p>	
Galdera espezifikoak	
Jakin	
<p><b>J.1.</b> Ba al dago aberastasuna/pobrezia-tasak neurtzen duen azterlanik?</p> <p><b>J.2.</b> Ezagutzen al dira lurraldean dauden ekimen ekonomiko alternatiboak eta lankidetzakoak eta ematen al da horien berri?</p> <p><b>J.3.</b> Egiten al da analisirik zerga-ihesak arlo ekonomikoan sortzen duen inpaktua agerian uzteko?</p> <p><b>J.4.</b> Ba al dago daturik jakiteko lurraldeko zer enpresek dituzten loturak paradisu fiskalekin?</p> <p><b>J.5.</b> Jakina al da lurraldean ezarritako zer enpresa ari diren fideikomiso, fundazio eta ahalordeen bidez?</p> <p><b>J.6.</b> Egiten diren azterlan ekonomikoetan jasotzen al dira ekonomia kritikoa, feminista, ekologia politiko eta abarretatik eginiko ekarpenak eta begiradak?</p> <p><b>J.7.</b> Funtzionarioentzako dauden prestakuntza-planetan ematen al da ekonomia kritikoa eta proposamen alternatiboetako buruzko prestakuntza espezifikorik?</p> <p><b>J.8.</b> Nekazaritza saileko langileei bideratutako prestakuntzan ematen al da nekazaritza ekologikoari buruzko ezaguerarik?</p>	
Arautu	
<p><b>A.1.</b> Ba al dago legedirik zerga-ihesari aurka egiteko, zerga-iruzurra murrizteko, paradisu fiskalen neurritz gainera erabilera saihesteko eta enpresa handien zerga bilketa bidezkoa eta gardentasuna eta kontuen ematea bermatzeko?</p> <p><b>A.2.</b> Zerga-sistemak ba al du ahalmenik zerga bidez gehiago biltzeko, errenta altuenen eta enpresa handien gain zerga-presio eraginkorra handituta eta pribilegiozko tratua onduzko kenkari eta zerga-salbuespen guztiak bertan behera utzita?</p> <p><b>A.3.</b> Egiten al da apustu zerga-sistema progresibo baten alde; hau da, ondarearen gainera zergak eta oinordetzen eta dohaintzen gainera zergak berrikusita aberastasuna zergapetu eta errenten tratamendurako gaur egungo sistema duala (lana eta kapitala) ezabatuta zerga-bilketa erreformatuko duen sistema baten alde?</p> <p><b>A.4.</b> Ba al dago sozietateen gainera zerga erreformatzeko proposamenik; hau da, interes-tasa efektiboa interes-tasa nominalera hurbildu eta ekonomiaren, lurraldearen eta herritarren mesederako balio erreala sortuko duten zerga-kenkariak eta -salbuespenak soilik mantenduko dituen proposamenik?</p> <p><b>A.5.</b> Aplikatzen al dira beste herrialde batzuekin adostutako hitzarmenak zerga-ihesik eta -saihesterik ez gertatzeko?</p> <p><b>A.6.</b> Ikertuak izan diren enprekin eta/edo paradisu fiskalekin loturak dituzten enprekin zerbitzurik ez kontratatze mekanismorik ezartzen al da?</p> <p><b>A.7.</b> Ba al dago mekanismorik foru lurraldean ezarritako enpresen jardueren ondorioz kaltetutako Hegoaldeko pertsona eta komunitateen erreparazioa derrigortuko duenik?</p> <p><b>A.8.</b> Jartzen al dira martxan emakumeen eta gizonen arteko soldata-arrakala murriztea sustatzen duten politikak? Ematen al zaie pizgarrikerik enpresei, bide horretan neurriak har ditzaten?</p> <p><b>A.9.</b> Ba al dago tresnarik administrazioak beste enpresa edo erakunde batzuen bidez azpikontratutako zerbitzuetan ari diren langileen baldintza duinak bermatzeko?</p> <p><b>A.10.</b> Ba al dago kudeaketa publikoko lurren bankurik?</p> <p><b>A.11.</b> Ba da dago berriazko araudirik merkataritza-azpiegitura handien aurrean bertako merkataritza eta bertako merkatuak babesteko eta sustatzeko?</p>	

## Planifikatu

- P.1.** Lurraren zer erabilera lehenesten eta sustatzen da? Lurraren planifikazioan, zer garrantzi dute lehen sektoreak eta nekazaritzaren sustapenak?
- P.2.** Zer garrantzi du nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerak lurraldearen jarduera ekonomikoan?
- P.3.** Nekazaritza-eredu iraunkor, ekologiko, hurbilekoa... sustatzen ari al da?
- P.4.** Gida-dokumentuetan eta/edo planifikazio-dokumentuetan, zein hartzen dira lurraldeko lehentasunezko eragile ekonomikotzat?
- P.5.** Planifikazio horietan, leku garrantzitsua hartzen al dute ekimen ekonomiko alternatiboek, sozialek, lankidetzakoek...?
- P.6.** Turismo-politika iraunkorra bultzatzen ari al da, ondare natural eta kulturalaren zaintzan oinarritua?
- P.7.** Sustatzen al da lurraldeko enpresen nazioartekotzea? Horretarako diseinatutako ikuspegiak eta tresnek hartzen al dituzte kontuan GGIn proposamenak?
- P.8.** Ba al dugu enplegua sustatzeko politika zabalik, lan-merkatuan hasteko zailtasun gehien dituzten biztanle-sektoreak (luzaro langabezian dauden pertsonak, 50 urtetik gorakoak, migratzaileak, emakumeak, gazteak, etab.) lehenetsiko dituen politikarik?
- P.9.** Jartzen al dira martxan ekoizpen eta kontsumo-ereduen eraldaketa sustatzeko eta iraunkorragoak eta ekitatiboagoak bihurtzeko ekimenak (kanpainak, etab.)?
- P.10.** Sustatzen al da ekonomia zirkularrei edo antzekoei buruzko jakintza? Gizarteratzen eta partekatzen al dira ezaguera horiek herritarrekin, oro har, eta enpresa-sektorearekin, bereziki?

## Kudeatu

- K.1.** Sustatzen eta indartzen al da, kudeaketako tresnen bidez, bertako enpresa-sarea nazioz gaindikoaren aurrean?
- K.2.** Lehenesten al da enpresa txiki eta ertainekin egindako lana handiekin eginikoren aldean?
- K.3.** Ematen al zaie pizgarrikeria zerga arloan gardentasunez jokatzeko duten enpresei?
- K.4.** Ba al da enpresen eta giza eskubideen behatoki edo gunerik?
- K.5.** Enplegu-politiken kudeaketan (enplegu-motak, norentzat, zenbat baliabide...), iraunkortasun-, ekitate- eta ahalduzko-irizpideak hartzen al dira oinarri?
- K.6.** Ekintzailatza babesteko politiketan, sustatzen al da elkartzeko eta lankidetzan jarduteko ekimenak martxan jartzea, bananako proiektuak bultzatu ordez?
- K.7.** Enplegua sustatzeko prestakuntza-prozesuetan, ematen al da ekimen ekonomiko sozial, solidario eta lankidetzakoei buruzko ezaguerarik eta erakusten al da nola txertatu ekitate- eta iraunkortasun-irizpideak ekimen horietan?
- K.8.** Gehitzen al da ikuspegi intersektionala enplegua sustatzeko politiketan?
- K.9.** Sustatzen al da, herritarrak kontzientziatzeko kanpainen bidez, bertako eta hurbileko saltokietan erostea?
- K.10.** Sustatzen al da gazteak lehen sektore- nekazaritzara biltzea? Jartzen al da martxan neurririk emakumeek lurra eskura izatea sustatzeko?
- K.11.** Gastu publikoaren zer ehuneko gauzatzen da sektore pribatuarekin eginiko hitzarmen edo kontratuen bidez?
- K.12.** Jasotzen al dira kontratazio horietan iraunkortasunarekin, ekitatearekin eta ahalduzkoarekin lotura duten eta nahitaez bete beharrekoak diren irizpideak?
- K.13.** Administrazioak ba al du kontraturik banku etiko, software libre, energia-kooperatiba eta abarrekin, eta ematen al die konpromiso horren berri herritarrei, sentsibilizazio-neurri gisa?

Esparru sozio-kulturala
Galdera orokorrak
<p><b>Iraunkortasuna:</b> Lantzen al dira politika sozio-kulturalak herritarrak subjektu gisa hartuta eta ez horien erabiltzaile huts gisa hartuta, eta, horrenbestez, politika horien egokitasuna, zuzentasuna eta erantzunkidetasuna bermatuta?</p> <p><b>Ekitatea:</b> Politika horien garapenean bermatzen al da begirada interseksionala, herritar guztiek eskubide guztiak modu ekitatiboan eskura izatea bermatzeko?</p> <p><b>Ahalduntzea:</b> Egoera zaugarrienak eta desoreka handienak jasaten dituzten taldeak ahalduntzeko prozesurik sustatzen al da berariaz?</p>
Galdera espezifikoak
Jakin
<p><b>J.1.</b> Hartzen al dira aintzat iraunkortasun-ekitate- eta ahalduntze-irizpideak gizarte-bazterketari buruzko azterlanetan?</p> <p><b>J.2.</b> Ezartzen al da bazterketaren eragina neurtzeko adierazlerik, begirada interseksionalak oinarri hartuta eta GGIren ikuspegiaren indar-ideiak gehituta?</p> <p><b>J.3.</b> Ba al da herritarren bizitza-kalitatea jakiteko adierazle-sistemarik, errenta-irizpideak eta/edo irizpide ekonomikoak gainditzen dituenik?</p> <p><b>J.4.</b> Bizitza-kalitateari eta ongizateari buruzko azterlanetan jasotzen al dira feminismoaren, ekologiaren, desazkundearen eta beste zenbait ikuspegi kritikoren proposamenak eta GGIren ikuspegiaren indar-ideiak?</p> <p><b>J.5.</b> Ba al da tresna eta mekanismo egokirik herritarren sektore zaugarrienen zer beharizan praktiko eta estrategiko dituzten jakiteko eta haien ahalduntzea sustatzeko?</p> <p><b>J.6.</b> Egiten al da ebaluaziorik edo azterlanik jakiteko diru-sarrerak bermatzeko errentak eta halako laguntzeko herritarren beharrak zenbateraino betetzen dituzten eta gogobetetze-maila zenbatekoa den (eskuratzeko aukera, izapidetzea, zenbat pertsonak eskura ditzaketen, etab.)? Ebaluazio horietan gehitzen al dira iraunkortasun-, ekitate- eta ahalduntze-irizpideak?</p> <p><b>J.7.</b> Mendekotasunaren babes eta dauden laguntzak direla eta, egiten al dira aldi behingo diagnostikoak eta ebaluazioak babes- eta gogobetetze-mailari, izapidetzearen arintasunari eta abarrei buruz?</p> <p><b>J.8.</b> Zer-nola baloratzen da familia-ingurunean zaintzarako dauden prestazioen erabilera, laguntza pertsonala edo zerbitzuak kontratatzeke beste batzuen aldean?</p> <p><b>J.9.</b> Ebaluatzen al dira, maiztasun jakinez, genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeei arreta osoa emateko zerbitzuak?</p> <p><b>J.10.</b> Ebaluazio horietan, jasotzen al dira feminismoak egiten dituen ekarpenak eta iraunkortasun-, ekitate- eta ahalduntze-irizpideak?</p> <p><b>J.11.</b> Egiten al da azterlanik jakiteko krisiak eta politika guztietan eta aurrekontuetan izan diren murrizketek zer-nolako eragina izan duten, eta, zehazki, esparru sozio-kulturaleko politiketan zer inpaktu izan duten?</p>
Arautu
<p><b>A.1.</b> Zer garapen eta aplikazio ematen zaio Mendekotasun Legeari?</p> <p><b>A.2.</b> Zer-nola garatzen ari da Emakumeenganako indarkeriaren aurkako legea?</p> <p><b>A.3.</b> Zer eginkizun bete du administrazioak gizarte-politiken esparruan azpikontratutako zerbitzuetan (adibidez, mendekotasuna duten pertsonen zaintza eta arretarekin loturikoetan), bai langileen bai zerbitzu horien erabiltzaileen baldintza duinak bermatzeko?</p> <p><b>A.4.</b> Jasotzen al dira zerbitzu horien azpikontratazioa arautzen duten dokumentuetan, iraunkortasun-, ekitate- eta ahalduntze-irizpideak?</p>



## Planifikatu

- P.1.** Gizarte-politiken planifikazioan, zer ikuspegi har daiteke lehentasunezkotzat: arreta ematea xede duena edo gaitasunak indartzea bilatzen duena? Jasotzen al dira GGIn indar-ideiak planifikazio horretan?
- P.2.** Ba al dago loturarik berdintasun-politiken eta indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arretarako politiken artean? (Ikuspegia, organigraman duten kokapena, tresnak, etab.)
- P.3.** Indarkeria matxista jasaten duten emakumeen arretan, ezartzen al da ikuspegi oso bat; hau da, heltzen al zaie indarkeria horren ertz ugariari, eta gehitzen al dira iraunkortasun-, ekitate- eta ahalduntze-irizpideak?
- P.4.** Sailen arteko koordinazio-ikuspegia oinarrian dela, planifikatzen al dira indarkeria matxistaren aurkako prebentzio-lana eta arreta? (Gizarte-politika, berdintasun, sustapen ekonomiko eta beste zenbait sail).
- P.5.** Sustatzen al dira herritarren iraunkortasun-, ekitate- eta ahalduntze-irizpideak aintzat hartuko dituzten programa kulturalak?
- P.6.** Programa kultural horietan, jasotzen al dira desoreka handienak jasaten dituzten biztanle-talde zaurgarrien proposamenak? Programa horietan, egiten al da apustu, besteak beste, kultura-aniztasuna sustatzearen alde?
- P.7.** Bermatzen al da programa kulturek emakumeen ekoizpenak bistaratzea?
- P.8.** Egiten al da lanik aniztasun funtzionala duten pertsonen kolektiboekin eta/edo elkarteekin politika sozio-kulturalen definizioan eta garapenean haien parte-hartze aktiboa eta ahaldundua sustatzeko?
- P.9.** Formulatu al dira, GGIn ikuspegia oinarrian dela, migratzaileei zuzendutako politikak?
- P.10.** Zer ikuspegitatik planifikatzen dira berdintasun-politikak? Ba al dago tresnarik gai hori zehar-lerrotzat hartzeko eta ahalduntzeko?
- P.11.** Kultura-aniztasuneko politikak formulatzean, aintzat hartzen al dira iraunkortasuna, ekitatea eta ahalduntzea?

## Kudeatu

- K.1.** Zenbateko aurrekontua eta zer baliabide bideratzen dira gizarte-politikerara eta zer ehuneko da hori guztizkoaren gain?
- K.2.** Zer bilakaera izan du gizarte-politikerara bideratutako aurrekontuak azken urteotan?
- K.3.** Hartzen al dira aintzat iraunkortasun-, ekitate- eta ahalduntze-irizpideak gizarte-laguntzen kudeaketan?
- K.4.** Zenbatekoa da azpikontrataturako zerbitzuen ehunekoa gizarte-politiken esparruan?
- K.5.** Zer bilakaera izan da haurtzaroaren babeserako politiken aurrekontuetan? Bermatzen al da politika horien hornidura maila altua?
- K.6.** Bermatzen al da 0 eta 3 urte arteko haurtzaindegi-zerbitzuaren eskari osoari erantzuteko adinako hornidura?
- K.7.** Ba al da iraunkortasun-, ekitate- eta ahalduntze-irizpideen arabera lan egiten duten zainzaileei laguntzeko zerbitzurik?
- K.8.** Bermatzen al da indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei arreta ematen dieten administrazioko langileek prestakuntza espezifikoa izatea emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan?
- K.9.** Zenbateko aurrekontua eta zer baliabide bideratzen dira berdintasun-politikerara eta zer ehuneko da hori guztizkoaren gain?
- K.10.** Zenbateko aurrekontua eta zer baliabide bideratzen dira kulturartekotasuna sustatzeko politikerara eta migrazio-politikerara, eta zer ehuneko da hori guztizkoaren gain?

Esparru ekologikoa
Galdera orokorrak
<p><b>Iraunkortasuna:</b> Lurralde-garapeneko prozesu guztietan (garapen hori zehazten duten politika eta tresnetan) ardatz eta printzipio indartsutzat hartzen al da dimentsio ekologikoa?</p> <p><b>Ekitatea:</b> Lurraldeko pertsona guztiok, erantzunkidetasunez, naturako ondasunak eta guztion ondasunak eskura izateko, zaintzeko eta gozatzeko politika sustatzen al da?</p> <p><b>Ahalduntzea:</b> Herritar kritiko eta ahaldunduak izatea sustatzen al da, gaur egungo belaunaldiek eta etorkizunekoek lurralde eta planeta iraunkorra izateko eskubidearen berme moduan? Jartzen al da tresnarik hala administrazioei nola sektore pribatuari eskubide horren errespetuan kontuak eskatzeko?</p>
Galdera espezifikoak
Jakin
<p><b>J.1.</b> Egiten al dira aztarna ekologikoa neurtzeko azterlanak?</p> <p><b>J.2.</b> Ba al dago tresnarik, azpiegitura handiek, garraio bideek eta, oro har, garapen-proiektuek sortutako eragin ekologikoa neurtzeko?</p> <p><b>J.3.</b> Jakina al da zer ingurumen-ikuspegitan oinarrituta egiten duten lan Foru Aldundiei zerbitzu ematen dieten enpresek?</p> <p><b>J.4.</b> Egiten al da azterlanik nekazaritza ekologikoko ekoizpen-ekimenek iraunkortasun, ekitate eta ahalduntze aldetik lurraldean sortzen duten eragina neurtzeko?</p> <p><b>J.5.</b> Egiten al da diagnostikorik administrazioan bertan energiaren eraginkortasuna eta energia-konsumoa murrizteko sustapen-lana neurtzeko?</p> <p><b>J.6.</b> Ba al dago azterlanik energia-pobreziaren eragina jakiteko eta horri aurre egiteko neurriak proposatzeko?</p>
Arautu
<p><b>A.1.</b> Lurraldea antolatzeko planak eta proiektuak iraunkortasun-, ekitate- eta ahalduntze-irizpideetan oinarrituta egiten al dira?</p> <p><b>A.2.</b> Ba al da araudi zehatzik lurraldeko natura-ondasunak babesteko eta arautzeko?</p> <p><b>A.3.</b> Aintzat hartzen, babesten eta sustatzen al dira guztion ondasuntzat hartzen direnak?</p> <p><b>A.4.</b> Ba al da araudirik ekologikoki iraunkorrak diren produktuen salmenta bultzatzeko?</p> <p><b>A.5.</b> Ba al da nekazaritza ekologikoa sustatzen duen araudirik?</p> <p><b>A.6.</b> Zer jarraipen egiten zaie ingurumenaren gaineko inpaktuari buruzko txostenei, eta zer gaitasun dago zigorrak ezartzeko iraunkortasuna kaltetzen edo kutsatzen duten jarduerentzat?</p> <p><b>A.7.</b> Ba al da ekimenik (araudi, dirulaguntza...) herritarren artean, administrazioan eta sektore pribatuan energia-trantsizioa sustatzeko?</p> <p><b>A.8.</b> Sustatzen al da energia berriztagarrien erabilera, eta administrazioa eredu al da arlo horretan gainerako eragileentzat?</p> <p><b>A.9.</b> Hartzen al da neurririk, bai administrazio barnerantz bai kanporantz energia-mendekotasuna murrizteko?</p> <p><b>A.10.</b> Zer leku eta garrantzi du ingurumen-iraunkortasunaren sustapenak hirigintzarekin loturiko jarduketak arautzeko legedietan?</p> <p><b>A.11.</b> Ba al da araudi eta jarduketa berezirik lurraldean uraren erabilera iraunkorra sustatzen duenik? Eta edateko ura pertsona guztientzat modu ekitatiboan eskura izatea bermatzen duenik?</p>

## Planifikatu

- P.1.** Zer politika eta programa bultzatzen dira hondakinen kudeaketarekin, kontsumoaren aurrezpen eta murrizketarekin eta energia-eraginkortasunarekin loturik; eta energia berriztagarrien bultzadarekin loturik?
- P.2.** Zer garrantzi dute obra handiek eta garapeneko makro-proiektuek (azpiegitura handiak) gobernu-planetan?
- P.3.** Aurrekontuaren zer ehuneko bideratzen da obra handietara?
- P.4.** Enpresek obra eta/edo hirigintza-proiektu handi horietarako egiten dituzten kontratazioetan, irizpideen zer ehuneko dago loturik iraunkortasunaren, ekitatearen eta ahalduntzearen sustapenarekin?
- P.5.** Ba al dago lurraldean industria "garbi" eta iraunkorren ezarpena sustatzeko programarik?
- P.6.** Administrazioak ba al du iraunkortasun-planik eta horiek garatzeko baliabide nahikorik?
- P.7.** Bermatzen al da herritarren esku-hartzea, ikuspegi intersektional batetik, lurraldearen antolaketa-prozesuetan?
- P.8.** Ezartzen al da mekanismo espezifikorik landa-inguruneko herritarrek prozesu horietan parte hartzen dutela bermatzeko?
- P.10.** Zer leku eta garrantzi dute enpresa handiek eta hazkunde ekonomikoarekin loturiko interesek antolaketa-prozesu horien definizioan?
- P.11.** Ba al da programarik baso mota guztien kudeaketa iraunkorra sustatzeko, hondatutako basoak berreskuratuz, eta bertako zuhaitzen bidez basoberritzea zabaltzeko?

## Kudeatu

- K.1.** Jartzen al da martxan ekimenik (kanpainak edo bestelakoak) klima-aldaketari buruz eta beharrezko energia-trantsizioari buruz kontzientzia hartzea sustatzeko?
- K.2.** Administrazioan bertan, egiten al da lan energia-kontsumoa murrizteko eta energia-iturri berriztagarrien erabilera sustatzeko?
- K.3.** Zer neurri eta pizgarri jartzen dira norberaren garraiobidea beharrean garraiobide publikoen eta/edo partekatuaren erabilera sustatzeko?
- K.4.** Garraiobide publikoa eta iraunkorra sustatzeko politiken artean, ba al da administrazioko langileei eragiten dienik? Eta politikoki izendatutako karguei eragiten dienik?
- K.5.** Energia-kooperatibetako bazkide al da administrazioa?
- K.6.** Ba al dago dirulaguntzen ildorik energia-iraunkortasuna sustatzeko (zentzu zabalean, berriztagarriak, eraginkortasuna, kontsumoa murriztea) udalentsat, eskualdeentsat, entitate pribatuentzat eta abar?
- K.7.** Aurrekontu osoaren zer ehuneko bideratzen da dirulaguntzen ildo horietara?
- K.8.** Administrazioak, erosketak egitean, kontuan hartzen al du produktuen bizitza-zikloaren analisia (ikerketa, garapena, erosketa, erabilera, mantenua eta bizitza-zikloaren amaieraren kudeaketa)?

Esparru politikoa
Galdera orokorrak
<p><b>Iraunkortasuna:</b> Lantzen al da politika publikoen gobernantza eta kudeaketa iraunkortasunaren begirada zabala oinarrian dela, eta, horri loturik, egiten al da lan herritar kritikoak eta erantzunkidetasuna sortzeko, bi balio horiek etorkizuneko belaunaldien eskubideak bermatzeko berme diren aldetik?</p> <p><b>Ekitatea:</b> Administrazioaren eraikuntzan sustatzen al da herritar guztien parte-hartzea alde publikoaren definizioan eta kudeaketa bateratuan, eta zaintzen al dira bereziki desoreka handienak jasaten dituzten taldeak eta/edo pertsonak?</p> <p><b>Ahalduntzea:</b> Zabaltzen al zaizkie politika publikoak eta haien kudeaketa herritarrei, banaka eta kolektibo moduan (elkarteak, gizarte-mugimenduak), ahaldundu eta parte har dezaten, gaur egun soilik kontsultarako diren organo eta espazioen muga estuak zabalduz eta parte hartzeko eremuak bihurtuz, erabakitzeko benetako ahalmenarekin?</p>
Galdera espezifikoak
Jakin
<p><b>J.1.</b> Administrazioko langileek jasotzen al dute GGlr eta politiken koherentziari buruzko prestakuntzarik?</p> <p><b>J.2.</b> Administrazioko oposizio- eta kontratazio-prozesuetan eskatzen al da GGlr buruzko prestakuntza izatea?</p> <p><b>J.3.</b> Egiten al dira diagnostikoak ikuspegi oso batetik, ala funtsean sektore/sailaren arabekoak dira?</p> <p><b>J.4.</b> Politika publikoak landu aurretik, egiten al da azterlanik elkarten eta gizarte-mugimenduen proposamen berri jakiteko?</p> <p><b>J.5.</b> Ba al dago metodologiarik eta tresnarik bermatzeko administrazioak jasotzen dituela herritarren beharrian praktikoak eta interesak, intersektionalitatearen ikuspegitik?</p> <p><b>J.6.</b> Ezartzen al da GGren ikuspegia kanpo ekintzari eta batez ere enpresen nazioartekotze-politikei loturiko azterlanetan?</p> <p><b>J.7.</b> Ba al dago Eraldaketa Sozialerako Hezkuntzako tresna espezifikorik, garapeneko agendaren harira herritar kritikoak sortzeko?</p> <p><b>J.8.</b> GGren agendak eta GpKak zer leku dauka herritarrei zuzendutako komunikazio-politiketan eta mezuetan?</p> <p><b>J.9.</b> Egiten al da azterlanik edo ikerketarik munduko Iparraldearen eta Hegoaldearen arazoak lotzeko, tokikoa eta globala uztartzeko eta aurrean ditugun erronka globalak eta unibertsalak ulertzen laguntzeko?</p>
Arautu
<p><b>A.1.</b> Garatu al da araudi espezifikorik erosketak publikoak irizpide sozial, ekologiko eta berdintasunezkoen arabera arautzeko eta sustatzeko?</p> <p><b>A.2.</b> Zehaztu al da klausula sozialik kontratazio publikorako? (Sozialak, berdeak, berdintasunezkoak, etab.) Nola aplikatzen dira iraunkortasun-, ekitate- eta ahalduntze-irizpideak kontratazio publiko guztietan?</p> <p><b>A.3.</b> Ba al daude parte hartzeko eremu egonkorak (kontseiluak), haien kontsulta-izaera zabaltzeko bideak ezartzea bilatzen duen araudi espezifikoarekin?</p> <p><b>A.4.</b> Landu al da politika publikoei buruz herritarrei kontsulta egiteko tresnarik, erabakitzeko ahalmenarekin?</p> <p><b>A.5.</b> Ba al dago herritarren parte-hartzea arautu eta bermatuko duen lege/ordenantzarik?</p>

Planifikatu
<p><b>P.1.</b> Ba al dago administrazioaren planifikazio orokorrerako gunerik edo bulegorik? Zeintzuk? GGIri buruzko gaiak jasota al daude horietan?</p> <p><b>P.2.</b> Zer tresna dago GGIn ikuspegia txertatzeko politika publiko guztien diseinu, ezarpen eta ebaluazioan?</p> <p><b>P.3.</b> Zenbateko aurrekontu espezifikoa bideratzen da administrazioan politiken koherentzia eta GGIn ikuspegia bultzatzeko?</p> <p><b>P.4.</b> Zer leku eta garrantzi dute GGIak eta GpKak Gobernu-planetan?</p> <p><b>P.5.</b> GGIn eta GpKren ikuspegia jasota al daude lankidetzaren politikan? Zer tresna dago horiek garatzeko?</p> <p><b>P.6.</b> Eta gainerako politiken plan sektorialetan?</p> <p><b>P.7.</b> Bermatzen al da lankidetzaren politikek lekua izatea gobernu-planifikazioko gune eta prozesuetan?</p> <p><b>P.8.</b> Ba al dago planik edo programarik herritarren eta gizarte-kolektiboen parte-hartze iraunkor, ekitatibo eta ahaldundua sustatzeko?</p> <p><b>P.9.</b> Ba al dago planik edo neurririk administrazioko langileen bizitza pertsonalean eta lanean erantzunkidetasuna sustatzeko? Ebaluatzen al dira horien eskuragarritasuna eta eragina, maiztasun jakinez?</p> <p><b>P.10.</b> Ari al dira 2030 Agendako proposamenak administrazioaren politikan txertatzen eta ezartzen?</p>
Kudeatu
<p><b>K.1.</b> Administrazioak egiten dituen erosketetan, lehenesten al dira honako hauek: kontsumo arduratsua, hurbileko ekoizpena, tokikoa, iraunkortasun-irizpideak aintzat hartzea...?</p> <p><b>K.2.</b> Beste ekitaldi batzuetarako kontratatzen diren cateringek eta bestelakoek nekazaritza ekologikoko edota hurbileko produktuak lehenesten al dituzte?</p> <p><b>K.3.</b> Administrazioak antolatutako jardueretan bermatzen al dira haurtzaindegi-zerbitzua eta beste batzuk, beren kargura mendeko norbait duten pertsonen haietan parte hartu ahal izan dezaten?</p> <p><b>K.4.</b> Zerbitzuak eta materialak kontratatzearen politikan, administrazioak lehenesten al ditu ekonomia sozial eta solidarioko enpresak eta ekimenak eta gizarteratzeko ekimenak?</p> <p><b>K.5.</b> Klausula sozialik izanez gero, zer garrantzi dute horiek kontratazioetarako ezarritako irizpideen guztizko portzentajea? Ba al dago jarraipena egiteko mekanismorik, kontratatutako enpresek klausula horiek betetzen dituztela egiaztatzeko?</p> <p><b>K.6.</b> Zer aurrekontu eta baliabide dituzte esleituta herritarren partaidetzarako espazioek? (kontseiluak, parte-hartze prozesuak, etab.) Zer ehuneko da hori guztizko aurrekontuaren gain?</p> <p><b>K.7.</b> Partaidetza-prozesuetan esku hartzen duten administrazioko langileek ba al dute prestakuntzarik GGIn arloan, eta ba al dute tresnarik ikerketarako, parte-hartze ekintzetarako eta herritarren hezkuntzarako?</p> <p><b>K.8.</b> Sustatu al da parte-hartzearen prozesurik aurrekontuak erabakitzearen, iraunkortasun-, ekitate- eta ahaldundutze-irizpideak aintzat hartuta?</p> <p><b>K.9.</b> Egitura/organigramaren barnean non kokatzen da politiken koherentzia eta iraunkortasunaren aldeko apustua? Ba al dago unitate espezifikorik (genero-unitateak, adibidez) GpKrekin loturiko gaiak jorratzeko?</p> <p><b>K.10.</b> Ba al daude aurrekontu eta langile espezifikoak GpKren agenda garatzeko?</p> <p><b>K.11.</b> Zer leku dute organigraman lankidetzaren politikek?</p> <p><b>K.12.</b> Aurrekontuetan zer ehuneko bideratzen da lankidetzaren politikan? Iristen al da %0,7ra? Aurrekontuetan konpromiso jarraitua eta iraunkorra izan al da denboraren joanean?</p> <p><b>K.13.</b> Lankidetzara bideratutako aurrekontutik zer ehuneko bideratzen da Eraldaketa Sozialerako Hezkuntzako eta herritarren sentsibilizazio kritikorako ekimentera?</p>

- K.14. Lankidetzaren Kontseiluetan gizarte-eragile askotarikoek hartzen al dute parte? Sustatzen al da, GGKE-  
ez gain, emakumeen erakundeek eta/edo feministek, migratzaileen elkarteek, giza eskubideen  
defendatzaileek, gizarte-mugimenduek eta bestelakoek ere esku hartzea?
- K.15. Egituraren barnean non kokatzen dira zehar-lerrotzat hartutako politikak eta zer tresna eta baliabide  
espezifiko daude haien garapenerako?
- K.16. Ba al daude sailen arteko eta sektoreen arteko elkarriketarako eremuak, hala nola Sai-arteko  
Batzordeak, kudeaketa publikoan esku-hartze koordinatua eta begirada osoa sustatzeko?
- K.17. Kanpora begirako eremurik ba al da, erakundeen artean edo beste eragile batzuekin koordinatzeko,  
eta GGIren ikuspegiarekin bat datozen garapen-ereduen bultzadan elementu nagusiak jorratzeko?
- K.18. Lantzen al da GGIren ikuspegia udalekin? (Adibidez, Tokiko 21 Agenda eta beste zenbait tresnaren  
bitartez)
- K.19. Zer mekanismo eta prozesu daude gobernuaren lanaren audioria soziala egiteko?
- K.20. Parte hartzen al da garapen-ereduarekin loturiko gaiei buruzko nazioarteko eremu edo sareetan?
- K.21. Langileak kontratatze eta/edo lan-poltsak sortzeko prozesuetan, zer ehuneko hartzen dute  
administrazio-kudeaketarekin loturiko edukiek, baremazio-irizpide guztien gain? Sartzen al dira  
berdintasunari, dibertsitateari, lankidetzari, GGIn buruzko gaitegi espezifikoak? Zer ehuneko hartzen  
dute barematzen diren gai guztien gain?
- K.22. Zer ekimen jartzen dira martxan tokiko elkarte-sarearen ahalduntzea eta garapena bultzatzeko?